



ARTE, KULTURA, ZIENTZIA ETA KIROL HEZKUNTZA PROGRAMA

2025-2026 IKASTURTEA

WWW.MAIRIE-CIBOURE.FR
WWW.ZIBURUKO-HIRIA.EUS

AURKIBIDEA



IBILBIDE KOMUNAK

- ◆ **Musika**
Landa Musika Zentroen musika hezkuntza ikastaroa | 8
- ◆ **Zuzeneko emanaldiak**
Gabonetarako ikuskizun bat | 9
- ◆ **Irakurketa publikoa**
Mediateka deskubritzen dut | 10
- ◆ **Kirola**
Belan hastapenak | 11
Igeriketa ikastaroak | 12
Bizikletan ibiltzen jakin | 13
Joko Eguna | 14
- ◆ **Prebentzioa**
Bizitzak salbatzeko ekintzen sentsibilizazioa | 15

**ZIBURU
CIBOURE**

MAIRIE – HERRIKO ETXEA

Argitalpen zuzendaria :

Eneko Aldana-Douat, Ziburuko auzapeza

Testuak : Kultura, ondarea eta elkarte bizitza saila

Sorkuntza : Komunikazio saila

Orrialde antolaketa : Donibanekopi

Itzulpena : Argia Urrutxi Bizkarra

Argazkiak : CPIE, Remi Angeli, Mapirudi, Korncebo

Compagnie Kankarro, NatElkeje

Imprimatzea : Donibanekopi, Donibane Lohizune

Liburuxka hau paper birziklatuan inprimatuta dago.

Lizentzia 1 : PLATESV-D-2022-006462

Lizentzia 2 : PLATESV-D-2022-006464

Lizentzia 3 : PLATESV-D-2022-006463

HAUTAZKO IBILBIDEAK

- ◆ **Musika**
Soinu-materien esplorazioa | 17
- ◆ **Zuzeneko emanaldiak**
Sagarrari oda bat bere forma guzietan | 18
"Attention à ta tête" (Kontuz zure buruarekin) edo inperfekzioaren edertasunaren ospakizuna | 19
- ◆ **Arte bisualak**
Ziburuko Points de Vue festibala | 20
- ◆ **Irakurketa publikoa**
Mediatekan autonomia bilakatzen naiz | 21
Ziburuko eskoletako literatur obra gogokoenak | 22
Ziburu hartu liburu - Ciboure part en livre-n baitan, idazle eta ilustratzaileekin topaketak | 23
Lehenengo sorginak, gaurko heroiak | 24
- ◆ **Ondarea**
Esploratzaileak, Arte eta historia Herrialdeko hezkuntza-ekintzak | 25
- ◆ **Kultura zientifikoa eta teknikoa**
AOIZ Euskal Itsasbazterra-ren ingurumen hezkuntza proiektuak | 28
«Ekintza ekoarduradunak» hezkuntza baliza | 31
Erlezaintza ikastaroa | 32
Elikadura osasungarrirako hezkuntza Ikastaroa | 33
Sozialitate digitaleko kodeak | 34

AUTONOMIAN USTIATU BEHARREKO BALIABIDEAK

- ◆ **Kaskarot-en ibilaldia** | 33
- ◆ **Untxin auzoaren erdian garatutako bidexka** | 37

SARRERA

2020an, Kultura, Ondare eta Elkarte Bizitza saila sortzea erabaki genuen, udal-eremuko **publiko guzientzat eskaintza kultural aberatsa eta eskuragarria garatzeko**.

Lurraldeko kultur eragileekin, eta tokiko eta nazioko elkarte eta enpresekin elkarlanean, kalitatezko programazio artistikoa garatzen dugu 2021eko maiatzetik, forma desberdinetako zuzeneko emanaldietan (antzerkia frantsesez eta euskaraz, zirkua, dantza, musika garaikidea eta musika klasikoa) eta irakurketa publikoetan ardatza jarritz.

Hornitu gabeko tokietan, espazio publikoetan, eskoletan edo ondare-guneetan, gure helburua publiko guzientzako iristea da, diziplina anitzeko eta ibiltaria den programa bat eskainiz.

2022an, **hezkuntza artistiko eta kulturalaren inguruko hausnarketa** bat egin zen Hezkuntza, Haurtzaro, Gazteria eta Kirola zerbitzuarekin elkarlanean. Lehenengo proiektuak sortu ziran hiriko ikastetxeetan haien laguntzarekin. 2023az geroztik, hausnarketa hau Euskal Hirigune Elkargoak gidatutako Euskal Herriko EACren (hezkuntza artistikoa eta kulturala) kudeaketaren parte da.

Hilabeteetan zehar, hausnarketa hau zabaldu egin zan eskolei proposatutako hezkuntza-proiektu guztiak barne hartzeko (kirola, garapen jasangarria, hezkuntza-politika, etab.), 2024-2025 ikasturte hasieran, kultura, zientzia eta kirol hezkuntza programa bat sortzera eramateko.

Hezkuntza-ekintza hauek hiriko egitura eta gaitasunetan (mediateka, programazio artistikoa) eta tokiko erakunde eta elkarteekin dugun lankidetzan (Arte eta Historia Herrialdea, Euskal Kultur Erakundea, Orchestre du Pays Basque - Iparraldeko Orkestra, Ravel jaialdia, etab.) oinarritzen dira.

Hezkuntza Nazionaleko sektoreko hezkuntza-aholkulariekin lankidetzan ere garatu dira.

Kontuan izan behar da dokumentu honetan aurkezten diren hezkuntza programak eskola-orduetan eskaintzen direla.

Ekintza hauek **gazteei autonomia lortzen laguntzeko gure nahian oinarritzen dira, herritar sortzaile eta dinamika kolektiboetako aktore bihurtzeko, pentsamendu kritikoaz jabetuta eta aberastuta**.

Beraz, liburuxka honetan arlo honen inguruan dauden proposamen guztiak bildu ditugu eta horietaz jabetzera gonbidatzen zaituztegu.

Espero dugu, udal-sail desberdinekin batera, haurren aurkikuntzarako eta munduarekiko irekitasunerako gustua piztuko duten proiektu aberats eta hunkigarrietan lan egiteko gogoak emango dizula!

Irakurketa ona opa dizugu,

Leire Larrasa

1. auzapezordea, hezkuntza, haurtzaro eta gazteriaren arduraduna

Emilie Dutoya

Auzapezordea, kultura, ondare eta elkarte bizitzaren arduraduna

Lehen Hezkuntzako programa berri honen esperimentazioko lehen urtean, irakasleek 13 aukerako ikastaro hartu dituzte, besteak beste, dantza, musika, literatura, ondarea eta zientzia-kultura. Lehenengo urtetik bosgarren urtera arte, hiru eskoletako ikasleek udalak eta bere bazkideek eskaintzen dituzten ikastaroez baliatu dira. *Proba* ikasturte honetan, 30 irakasleen matrikula erregistratu dira ikastaro desberdinetan, hau da, 597 haur matrikulatu dira (haur batzuek hainbat ikastaroz baliatu dira eta, beraz, hainbat aldiz zenbatzen dira).



HEZKUNTZA ARTISTIKO ETA KULTURALAREN ARAUDIA

ARTE ETA KULTURA HEZKUNTZAKO GOI KONTSEILUAREN EKIMENEZ

1

Hezkuntza artistiko eta kulturala **guzientzat eskuragarri egon behar da**, eta batez ere hezkuntza establezimienduetako gazteentzako eskuragarri, ama hezkuntzatik hasi eta unibertsitateraino.

4

Hezkuntza artistikoak eta kulturalak pertsonaren eta herritarraren hezkuntzan eta emantzipazioan laguntzen du, haien sentsibiltatea, sormena eta pentsamendu kritikoa garatuz. **Artearen bitartez eginiko hezkuntza** ere bada.

8

Hezkuntza artistiko eta kulturala, **bertan parte hartzen duten bazkideen prozesu dinamiko** bat da (sorkuntza, ebaluazioa, ezarpena).

2

Hezkuntza artistikoak eta kulturalak **obrak bisitatzea, artistekin elkartzea, praktika artistikoa eta ezagutzak eskuratzea** biltzen ditu.

5

Hezkuntza artistiko eta kulturalak **gazteen bizitzako etapa guziak** hartzen ditu kontuan, haien **familia eta lagunarteko ingurunea** hartzen duen ibilbide koherente baten baitan.

9

Hezkuntza artistiko eta kulturalak **eragile desberdinen prestakuntza** eskatzen du, elkarren ezagutza, erreferentzia komunak eskuratzea eta partekatzea sustatuz.

3

Hezkuntza artistikoak eta kulturalak partekatutako kultura bat eskuratzea du helburu, aberatsa eta anitza bere ondarean eta forma garaikideetan, herrikoietan eta jakintsuetan, eta nazio eta nazioarteko dimentsioetan. **Artean hezkuntza** bat da.

6

Hezkuntza artistikoak eta kulturalak aukera ematen die **gazteei euren esperientziei zentzua emateko eta mundu garaikidea hobeto ulertzeko**.

10

Hezkuntza artistiko eta kulturalaren garapenak **ikerketa eta ebaluazio lan**en gai izan behar du, ekintzen eragina identifikatzeko, haien kalitatea hobetzeko eta ikuspegi berritzaileak bultzatzeko.

7

Gazte guziek hezkuntza artistiko eta kulturalera sarbide berdintasuna edukitzeak, **kide desberdinen arteko elkarrekiko konpromisoan** oinarritzen da: hezkuntza komunitatea eta kultur mundua, elkarte sarea eta gizarte zibila, Estatua eta lurralde elkargoak.

2024 - 2025KO EGUTEGIA



2025EKO EKAINAREN 30EKO ASTEA

Arte, kultura, zientzia eta kirol hezkuntzako programaren aurkezpena hiru ikastetxeetako zuzendari eta irakasleei.

2025EKO ABUZTUAREN 25KO ASTEA

Eskola bakoitzarekin bilera galderak erantzuteko eta aukerako ikastaroetarako izen-emateak biltzeko

2025EKO IRAILAREN 1EKO ETA 8KO ASTEAK

Aukerako proiektuetarako izen-emateen amaiera

2025EKO IRAILAREN 15EKO ETA 22KO ASTEAK

Irakasleen izen-emate administratiboa Adage plataformaren bitartez.



ALORRA	IZENBURUA	Hizkuntza	Saio kopurua	TTIPI-TTIPIAK	TTIPIAK	ERTAINAK	HANDIAK	1. URTEA	2. URTEA	3. URTEA	4. URTEA	5. URTEA	Parte hartu ahal duten klase kopurua
IBILBIDE KOMUNAK													
Musika	Landa Musika Zentroen musika hezkuntza ikastaroa	FR eta EUS	Irailetik ekainera astero								x	x	Denak
Zuzeneko emanaldiak	Gabonetarako ikuskizun bat	FR, EUS edo hitz gabe	1	x	x	x	x	x	x	x	x	x	Denak
Irakurketa publikoak	Mediateka deskubritzen dut	FR eta EUS	1	x	x	x	x						Denak
Kirola	Bela hastapenak	FR	12									x	Denak
	Igeriketa ikastaroak	FR	10				x	x	x	x	x	x	Denak
	Bizikletaz ibiltzen jakin	FR eta EUS					x	x	x	x	x	x	Denak
	Joko Eguna	FR	1	x	x	x	x	x	x	x	x	x	Denak
Prévention	Bizitzak salbatzeko ekintzen sentzibilizazioa	FR eta EUS	1									x	Denak
HAUTAZKO IBILBIDEAK													
Musika	Soinu-materien esplorazioa	FR eta EUS	5	x	x	x	x						2
Zirkua eta kultura zientifikoak	Sagarrari oda bat bere forma guzietan	FR eta EUS	7					x	x	x	x	x	2
Zirkua	"Attention à ta tête" (Kontuz zure buruarekin) edo inperfekzioaren edertasunaren ospakizuna	FR	3					x	x	x	x	x	2
Arte bisualak	Ziburuko <i>Points de Vue</i> festibala	FR	1	Geroago definitzeko									2
Irakurketa publikoak	Mediatekan autonomia bilakatzen naiz	FR eta EUS	30 denbora-tarte eskuragarri urtean					x	x	x	x	x	30 denbora-tarte eskuragarri urtean
	Ziburuko eskoletako literatur obra gogokoena	EUS						x	x				3
	Ziburu hartu liburu - Ciboure part en livre	FR eta EUS	1					x	x				Eskaeraren arabera
	Lehengo sorginak, gaurko heroiak	FR eta EUS	4	x	x	x	x	x	x	x	x	x	2
Ondarea	Esploratzaileak, Arte eta historia Herrialdeko hezkuntza-ekintzak	FR eta EUS	Aukeratutako ibilbidearen arabera	x	x	x	x	x	x	x	x	x	Eskaeraren arabera
Kultura zientifikoak	AOIZ Euskal Itsasbazterren ingurumen hezkuntza proiektuak	FR eta EUS	Egun 1/2	X	X	X	X	X	X	X	X	X	Ikasturtean zehar 5 egun erdi
	"Ekintza ekoarduradunak" hezkuntza baliza	FR eta EUS	1					X	X	X	X	X	Eskaeraren arabera
	Erlezaintza ibilbidea	FR	2								X	X	2
	Elikadura osasungarriako hezkuntza Ikastaroa	FR eta EUS	2					X	X	X			2
	Sozialitate digitaleko kodeak	FR (eta EUS)	4									X	1



IBILBIDE KOMUNAK

- › Musika
- › Zuzeneko emanaldiak
- › Irakurketa publikoa
- › Kirola
- › Prebentzioa





MUSIKA

LANDA MUSIKA ZENTROEN MUSIKA HEZKUNTZA IKASTAROA



4. eta 5. urteak



3 eskolak



Iraila >> Ekaina



Ikasgelan



Frantsesa
Euskara



Irakasleek Adage
plataformaren bidez
izena eman beharko
dute



Kultura, Ondare eta
Elkarte Bizitza saila
[animations@
mairiedeciboure.com](mailto:animations@mairiedeciboure.com)

Bere hezkuntza herrikoiaren misioari eta bere proiektu federalaren jarraibideei leial, Landa Musika Zentroen Federazio Nazionalak (Cmr) **ahalik eta pertsona gehienek musikara sarbidea izatea sustatzen** duten ekimenak garatzen ditu, adina, kokapena edo bizitzako egoerak edozein izanda ere.

Zenbait urtez, Ziburuko hiriak Federazioarekin lan egiten du herriko eskoletan, eskola orduetan musika hezkuntzako programak ezartzeko.

2025-2026an, hiru eskoletako 4. eta 5. urteko ikasleek 45 minutuko musika saioak edukiko dituzte astero, musikari-hizlari batek gidatuta, urte osoan zehar.

AURREIKUSITAKO TREBETASUN ARLOAK

- ☼ Pentsatzeko eta komunikatzeko hizkuntzak
- ☼ Ikasteko metodoak eta tresnak

Ezagutzak

Praktika



© Komcebo

ZUZENeko EMANALDIAK

GABONETARAKO IKUSKIZUN BAT

Urtero, Ziburuko udalak, hiriko eskoletako haur guziei (haurtzaindegia eta lehen hezkuntza) ikuskizun-irteera bat eskaintzen die urte amaiera ospatzeko.

2025ean, «Itzaletik argira» gaiaren inguruan diziplina anitzeko eta eleaniztun programa zabalduko da. Behin betiko programa irailean aurkeztuko da, ikasturte hasieran.


AURREIKUSITAKO TREBETASUN ARLOAK

- ☀ Pentsatzeko eta komunikatzeko hizkuntzak
- ☀ Munduaren eta giza jardueraren irudikapenak
- ☀ Pertsonaren eta herritarraren hezkuntza

Topaketak



© Mapirudi



Ttapi-ttapiak-etik
5. urte-ra



3 eskolak



Abendua



Ikuskizunen arabera



Ikuskizunen arabera



Irakasleek Adage
plataformaren bidez
izena eman beharko dute



Kultura, Ondare eta Elkarte
Bizitza saila
[animations@
mairiedeciboure.com](mailto:animations@mairiedeciboure.com)

IRAKURKETA PUBLIKOA

MEDIATEKA DESKUBRITZEN DUT

Mediatekaren lehen bisitak mundu handia zabaltzen die haur ttipiei. **Haurren albumek eta haien irudizatutako eta koloreztatutako ipuinek irudimena eta hizkuntza garatzen dituzte.**

François Rospide Mediatekak haur hezkuntzako ikasgela guzietan esperientzia berezi bat eskaintzen die: liburutegiaren eta bere txoko guzien bisita, taldeko irakurketak, liburuetan murgiltzea eta, behar bada, ikasgelak edo haur bakoitzak liburu bat maileguan hartzeko aukera.

Saioak egokitzea posible da irakasleek landu nahi dituzten gaien arabera.

AURREIKUSITAKO TREBETASUN ARLOAK

- ☼ Pentsatzeko eta komunikatzeko hizkuntzak
- ☼ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ☼ Munduaren eta giza jardueraren irudikapenak

Ezagutzak



Ama eskola



3 eskolak



Iraila >> Ekaina



François Rospide
mediateka edo
ikasgelan



Frantsesa
Euskara



Izen-ematea
<https://labur.eus/ZIBURU-MDTK-2025-2026>



Mediateka
[mediatheque@](mailto:mediatheque@mairiedeciboure.com)
mairiedeciboure.com
06 64 74 67 43

BELA HASTAPENAK

Lehen Hezkuntzako azken mailan, 5. urteko ikasleek **12 hastapen bela saiotan** parte hartzen dute. Ikasleek, itsasontzi mota desberdinak ezagutzeko aukera eta ingurune ezegonkor eta aldakorra ezagutuz esperientzia paregabea bizitzeko aukera dute, eskola programan ezarritako hezkuntza-helburuak betez.

Eskolan nabigatzen ikasteak aukera paregabeak eskaintzen ditu, ingurune natural eta bizigarri batean murgildu eta gozatzeko aukera emanez.

AURREIKUSITAKO TREBETASUN ARLOAK

- ☀ Pentsatzeko eta komunikatzeko hizkuntzak
- ☀ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ☀ Munduaren eta giza jardueraren irudikapenak
- ☀ Sistema naturalak eta sistema teknikoak

Praktika

Ezagutzak



© Komcebo



5. urtea



Marinela eskola
Saint-Michel eskola



Iraila >> Urria
Apirila >> Maiatza



Zokoa – Donibane
Lohizuneko
itsasadarra – Ziburu



Frantsesa



Ez da izapide
administratibo berezirik
egin behar



Hezkuntza saila
m.martcorena@mairiedeciboure.com



KIROLA

IGERIKETA IKASTAROAK

Handiak mailatik hasita, ikasleek **10 igeriketa saio izango dituzte ikasturte bakoitzean**, Lehen hezkuntzako azken mailara arte.

Ikaskuntzak, eskola-ziklo desberdinetan zehar progresiboak direnak, ikasleak 3. zikloaren amaieran Uretako Erraztasun Proba balioztatzera eramán nahi ditu.



Handiak-etik 5. urtera



3 eskolak



Urte osoan zehar,
Donibane Lohizuneko
igerilekuak definitutako
egutegiaren arabera



Donibane Lohizuneko
igerilekua



Frantsesa



Ez da izapide
administratibo berezirik
egin behar



Hezkuntza saila
[m.marticorena@
mairiedeciboure.com](mailto:m.marticorena@mairiedeciboure.com)

AURREIKUSITAKO TREBETASUN ARLOAK

- ☀ Pentsatzeko eta komunikatzeko hizkuntzak
- ☀ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ☀ Sistema naturalak eta sistema teknikoak

Praktika

Ezagutzak





BIZIKLETAN IBILTZEN JAKIN

"Bizikletan ibiltzen jakin" programak, haurrak bigarren mailako ikastetxeetan sartzen direnean, beharrezkoak diren gaitasunak eskuratzea ahalbidetzen die.

Baliabidearen 3 faseak :

- ✦ **Handiak eta 1. urtea ikasgeletan,** pedalei eragiten jakin: bizikletaren oinarriak menperatu. Oreka ona lortu, bizikleta zuzen ibili eta kontrolatzen ikasi (pedalei eragin, birak hartu, gelditu).
- ✦ **2. eta 3. urtea mailetan,** nola mugitzen jakin: segurua den leku batean bizikletaz nola mugitu ezagutu. Taldean ibiltzen jakin, besteei norabidea aldatzeko nahiaren berri eman eta errepide kodeko bide seinaleak ezagutu
- ✦ **4. urtea mailan,** bizikletan ibiltzen jakin: egoera erreal batean bizikletaz ibili. Bide publikoetan modu autonomoan gidatzen ikasi eta praktika-espazio desberdinetaz jabetu.

Bizikleta ikastaroekin batera, udaltzainek Lehenengo Bide-Hezkuntzaren Agiria (APER) balioztatzeko lan egingo dute ikasleekin. Saio kopurua ikasleen adinera egokituko da.

AURREIKUSITAKO TREBETASUN ARLOAK

- ☀ Pentsatzeko eta komunikatzeko hizkuntzak
- ☀ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ☀ Munduaren eta giza jardueraren irudikapenak
- ☀ Sistema naturalak eta sistema teknikoak

Praktika

Ezagutzak



Handiak-etik 5. urtera



3 eskolak



Iraila >> Urria
edo Maiatza >> Ekaina



Ziburu



Frantsesa
Euskara



Ez da izapide
administratibo berezirik
egin behar



**Hautzaro, Gazteria
eta Kirol saila**
k.luberriaga@mairiedeciboure.com



KIROLA

JOKO EGUNA

Urtero, Haurtzaro, Gazteria eta Kirola saileko animatzaileek, **egun dibertigarri** bat antolatu eta eskaintzen diete herriko ikastetxe publiko eta pribatuetakoa haurrei (egun erdia Ama Hezkuntzako ikasleentzat eta egun osoa Lehen Hezkuntzakoentzat).

Helburua, hiriko hiru eskoletako haurrak jarduerak eta **ikaskuntza akademikoak** biltzen dituen **jolas-denbora** batean biltzea da.

Egun osoan zehar, haurrak lehiatu edo elkartu egingo dira, kirol, arte, kolektibo eta/edo banakako hainbat jardueren inguruan.

Urtero, Joko Eguna animazioa bi ziklo desberdinei eskaintzen zaie (adibidez, Ama eskola eta 1., 2. eta 3. urteei).



Ttipi-ttipiak-etik
5. urte-ra



3 eskolak



Ikasle-taldeekin
zehaztekoa



Guy Poulou erabilera
anitzeko espazioa edo
Ziburuko hondartza



Frantsesa
Jokoen arau denak
euskarara itzulita daude



Ez da izapide
administratibo berezirik
egin behar



**Haurtzaro, Gazteria
eta Kirol saila**
[k.luberriaga@
mairiedeciboure.com](mailto:k.luberriaga@mairiedeciboure.com)

AURREIKUSITAKO TREBETASUN ARLOAK

- ☀ Pentsatzeko eta komunikatzeko hizkuntzak
- ☀ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ☀ Sistema naturalak eta sistema teknikoak
- ☀ Pertsonaren eta herritarraren hezkuntza
- ☀ Munduaren eta giza jardueraren irudikapenak

Topaketak



PREBENTZIOA

BIZITZAK SALBATZEKO EKINTZEN SENTSIBILIZAZIOA

Segurtasun zibileko kultura sustatzea eta erantzukizunean heztea ezinbesteko neurriak dira balizko krisi bati aurre egiteko eta horrelako kasuetan hezkuntza-komunitatearen erantzun-gaitasuna hobetzeko. Lehen sorospenen prestakuntzak eta bizitzak salbatzeko ekintzei buruzko sentsibilizazioak, beraz, **ikasleei ahalmena ematea dute helburu, eskolen eta hezkuntza-erakundeen segurtasunean eragileak izan daitezzen.**


Prestakuntza hau derrigorrezkoa da ikaslearen hezkuntza-ibilbidean. Testuinguru honetan, Ziburuko hiriak udalerriko 5. urteko ikasle guzietan bizitzak salbatzeko ekintzei buruzko sentsibilizazio-programa bat egiteko aukera eskaintzen die, gai hauek jorratzen dituenak :

- » Babesa eta alerta
- » Odol-galtzeak
- » Itxarote-posizioak
- » Konortea galtzea
- » Bihotz-gelditzea

Egun erdiko esku-hartzeari esker (10-15 ikasle talde bakoitzeko), Belharra Watermen Club elkarteak diploma bat emango dio haur bakoitzari.

AURREIKUSITAKO TREBETASUN ARLOAK

- ☼ Pentsatzeko eta komunikatzeko hizkuntzak
- ☼ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ☼ Sistema naturalak eta sistema teknikoak



5. urtea



3 eskolak



Ikasle-taldeekin
zehaztekoa



Eskola




Frantsesa
Euskara



Ez da izapide
administratibo berezirik
egin behar



**Hautzaro, Gazteria
eta Kirol saila**
[k.luberriaga@
mairiedeciboure.com](mailto:k.luberriaga@mairiedeciboure.com)



HAUTAZKO IBILBIDEAK

- › Musika
- › Zuzeneko emanaldiak
- › Irakurketa publikoa
- › Arte bisualak
- › Ondarea
- › Kultura zientifikoa eta teknikoa



SOINU-MATERIEN ESPLORAZIOA

Ikastaro hau Ziburuko hiriak LagunArte konpainiari eta bere UP! Ikuskizunari egiten dien harreraren barnean eskaintzen da. UP! ikuskizuna ahots eta objektuentzako bakarkako kontzertua da, eta haztea nolakoa den kontatzen du, autokonfiantza ematen dizuten edo ikara eragiten dizuten gorabehera guzietan.

Hurrengo ekintzez osatuta egongo da :

- ✦ **UP! ikuskizunaren eskola-emankizuna** 2025eko abenduaren 9an, goizean edo arratsaldean, Guy Poulou erabilera anitzeko espazioan (30 minutuko hitzik gabeko emanaldia 6 hilabete eta 5 urte bitarteko haurrentzat);
- ✦ **Lau ikastaro, 30-45 minutukoak, talde erditan**, haurrak ikuskizuneko material oinarritutako soinu-paisaia bat sortzera gonbidatzeko, 2025eko azaro-abenduan (ordutegia hizlarien erabilgarritasunaren eta irakasleen nahien arabera zehaztuko da).

AURREIKUSITAKO TREBETASUN ARLOAK

- ☼ Pentsatzeko eta komunikatzeko hizkuntzak
- ☼ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ☼ Munduaren eta giza jardueraren irudikapenak
- ☼ Pertsonaren eta herritarren hezkuntza



© Remi Angeli



Ttipi-ttipiak-etik
Handiak-era



2 ikasgela



Azaroa >> Abendua



Ikastaroak eskolan eta
ikuskizuna Guy Poulou
erabilera anitzeko
espazioan



Frantsesa
Euskara



Irakasleek Adage
plataformaren bidez izena
eman beharko dute



Kultura, Ondare eta
Elkarte Bizitza saila
[animations@
mairiedeciboure.com](mailto:animations@mairiedeciboure.com)



ZUZENeko EMANALDIAK

SAGARRARI ODA BAT BERE FORMA GUZIETAN

Ikastaro hau Ziburuko hiriak Kankarro konpainiari eta bere izen bereko ikuskizunari egiten dien harreraren barnean eskaintzen da. Ikuskizuna zirkuaren eta dantzaren arteko bidaia sentzorial bat da, sagarrari bere forma guzietan oda bat eskaintzen diona.


Hurrengo ekintzez osatuta egongo da:

- **Hendaiaiko Abbadia behatoki-gazteluan egun erdi bat** 2025eko irail-urrian: CPIE Euskal Itsasbazterra-ko bitartekariak lagunduta, ikasleek «Atzoko sagarrak, gaurko ondarea» ikastaroan parte hartuko dute eta gero dastatu ahal izango duten sagarra biltzen eta zukua egiten lagunduko dute;
- **2 orduko bost ikastaro** (2 x ordubeteko ikastaroa egiteko aukera), 2026ko apirilaren 27, 28 eta 30ean eta maiatzaren 4 eta 5ean: konpainiako artistek akrobazia eta objektuen manipulaziorako hastapen ikastaroa eskainiko diete ikasleei, baita irudimenarekin eta estetikarekin lotutako eszena labur bat sortzen ere.
- **Kankarro ikuskizunaren eskola-emanaldia** 2026ko maiatzaren 7an, osteguna, Zokoako frontoian;

Ikastaro hau, Ziburuko herriak bazkide gisa, EKO Pyrénées de Cirque Europako mugaz haraindiko lankidetzaren proiektuan duen parte-hartzeari esker da posible.

AURREIKUSITAKO TREBETASUN ARLOAK

- ☀ Pentsatzeko eta komunikatzeko hizkuntzak
- ☀ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ☀ Munduaren eta giza jardueraren irudikapenak
- ☀ Pertsonaren eta herriarraren hezkuntza



© Kankarro konpania

Ezagutzak

Topaketak

Praktika



1. urtetik 5. urtera



2 ikasgela



Apirila >> Maiatza 2026



Ikastaroak eskolan edo erabilera anitzeko gunean eta ikuskizuna Zokoako frontoian



Frantsesa
Euskara



Irakasleek Adage
plataformaren bidez izena
eman beharko dute



Kultura, Ondare eta
Elkarte Bizitza saila
[animations@
mairiedeciboure.com](mailto:animations@mairiedeciboure.com)

ZUZENeko EMANALDIAK

ATTENTION À TA TÊTE EDO INPERFEKZIOAREN EDERTASUNAREN OSPAKIZUNA

Ikastaro hau Ziburuko hiriak Le Polpesse konpainiari eta bere Attention à la tête ikuskizunari egiten dien harreraren barnean eskaintzen da. Ikuskizuna hiru juglareen malabarismoa beste ikuspuntu batetik ikusteko nahitik sortutako proiektua da; arrakastarik ez izatearen frustrazioa alde batera utzi eta inperfezioaren edertasuna ospatzeko.

Hurrengo ekintzez osatuta egongo da:

- **2 orduko bi ikastaro**, 2026ko maiatzaren 19 eta 21ean: konpainiako artistek malabarismo eta antipodismoan (malabarismoa oinekin) hastapena eskainiko diete ikasleei;
- **Attention à ta tête ikuskizunaren eskola-emanaldia**, 2026ko maiatzaren 22an, ostirala, Santa Gurutze auzoko parkean.

Ikastaro hau, Ziburuko herriak bazkide gisa, EKO Pyrénées de Cirque Europako mugaz haraindiko lankidetzaren proiektuan duen parte-hartzeari esker da posible.

AURREIKUSITAKO TREBETASUN ARLOAK

- ☼ Pentsatzeko eta komunikatzeko hizkuntzak
- ☼ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ☼ Munduaren eta giza jardueraren irudikapenak
- ☼ Pertsonaren eta herriarraren hezkuntza

Ezagutzak

Topaketak

Praktika



© NatElkeje



1. urtetik 5. urtera



2 ikasgela



Maiatza 2026



Ikastaroak eskolan edo erabilera anitzeko gunean eta emanaldia Santa Gurutze auzoguneko parkean



Frantsesa



Irakasleek Adage plataformaren bidez izena eman beharko dute



Kultura, Ondare eta Elkarte Bizitza saila
animations@mairiedeciboure.com



ARTE BISUALAK

ZIBURUKO *POINTS DE VUE* FESTIBALA

Euskal Herriko Hirigune Elkargoak gidatuta, tokiko udalen eta elkarleen laguntzarekin, Points de Vue festibalak publikoa gonbidatzen du **hiri-arte bere forma guzietan ezagutzera**.

Urtero, tokiko eta nazioarteko hamar artista inguru biltzen ditu: grafitietatik hasi eta arte garaikideraino, edozein dela ere euskarria, eragin eta jatorri anitzekin, artistek hiri-espazioa kreatibitate ukitu batekin betetzen dute.

2021etik, *Points de Vue* Baionako harresietatik haratago hedatzen da eta programatutako artistei **tokiko udalerrietako egonaldi baten inguruan lan bat sortzeko** aukera eskaintzen die.

Aste batzuetan zehar, artistek eskaini zaien tokian inspiratzen dira eta bertako bizilagunekin eztabaidatu egiten dute bizi diren eskualdea islatzen duen lan berri bat diseinatu eta ekoizteko.

2025 urtean, Ziburuko hiria aukeratu zuten tokiko egonaldi bat errezibitzeko. Testuinguru honetan, **artista bat Ziburun egongo da bi aste inguruz, Ttiki trinketearen aurrealdean, herriaren eremu historiko, geografiko eta sozialaren eragina duen lan bat sortzeko**.

Artistaren egonaldian zehar bizilagunekin eta eskoletako ikasleekin topaketak antolatuko dira.



Artistarekin definitzeko



2 ikasgela



2025eko irailaren
29ko astea



Trinkete Ttikia



Hautatutako
artistaren arabera



Irakasleek Adage
plataformaren bidez izena
eman beharko dute



Kultura, Ondare eta
Elkarte Bizitza saila
[animations@
mairiedeciboure.com](mailto:animations@mairiedeciboure.com)


AURREIKUSITAKO TREBETASUN ARLOAK

- ☼ Pentsatzeko eta komunikatzeko hizkuntzak
- ☼ Pertsonaren eta herritarraren hezkuntza
- ☼ Munduaren eta giza jardueraren irudikapenak



Topaketak

IRAKURKETA PUBLIKOA



MEDIATEKAN AUTONOMOA BILAKATZEN NAIZ

Mediatekan albumak, eleberriak, dokumentalak, komikiak eta multimedia euskarriak aurkitzen ditugu. **Nola mugitu mediatekan eta zer aurki dezakezu apaletan?**

Saio bati edo batzuei esker, ikasleek irakurketa kolektiboekin, indibidualekin eta jolasekin gozatu ahalko dute, eta denek mailegatutako liburu batekin irten ahal izango dute.

Ikastaroaren edukia irakaslearekin lankidetzan eraikiko da, haien igurikatze eta ikasturterako duten programaren arabera.

AURREIKUSITAKO TREBETASUN ARLOAK

- ☼ Pentsatzeko eta komunikatzeko hizkuntzak
- ☼ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ☼ Munduaren eta giza jardueraren irudikapenak



Ezagutzak

Topaketak



Lehen maila



30 denbora-tarte eskuragarri urtean



Iraila >> Ekaina



François Rospide mediateka



Frantsesa
Euskara



Izen-ematea <https://labur.eus/ZIBURU-MDTK-2025-2026>



Mediateka
mediatheque@mairie-deciboure.com
06 64 74 67 43



IRAKURKETA PUBLIKOA

ZIBURUKO ESKOLETAKO LITERATUR OBRA GOGOKOENAK

2026eko udaberrian *Euskaraldia* ospatuko da; herritarren hizkuntza ohituretan eragitea eta horrela euskaraz bizitzeko aukera eskaini nahi duen ekitaldia.

Testuinguru horretan, Ziburuko hiriak euskarazko **haur literaturaren inguruko ikastaroa eskaintzen die hiru ikastetxeei**. Ikasleek euskarazko literatur ekoizpenaren aberastasuna ezagutzeko eta "eragin-sortzaile" papera hartzeko aukera izango dute!

Ikastaro honek ikasgela bakoitzari hileroko topaketa bat eskainiko dio:

- **Hiru ikasgelen arteko topaketa bateratua** irailean izango da, proiektua aurkeztu eta lanen aukeraketa egiteko;
- Urriaren 10ean, ostirala, **Ikusi Mikusi Liburu Azokara bisita**;
- **Egile/ilustratzaile batekin edo gehiagorekin topaketa**;
- **Liburu-denda baten bisita eta liburu-lanbide desberdinen informazioa**;
- **Mediatekan sormen tailerrak eta topaketak**, ikasleek lan bakoitzari buruzko iritzi pertsonala izan dezaten;
- **Aurkezpen bat** Guy Poulou erabilera anitzeko espazioan.

2024-2025ko hasierako esperientziaren ondoren, ikastaro hau zabaldu egingo da irakasleen igurikatze eta ikasleen beharrak hobeto asetzeko.

AURREIKUSITAKO TREBETASUN ARLOAK

- ☼ Pentsatzeko eta komunikatzeko hizkuntzak
- ☼ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ☼ Munduaren eta giza jardueraren irudikapenak
- ☼ Pertsonaren eta herritarren hezkuntza



Ezagutzak

Topaketak

Praktika



1. urtetik 2. urtera



Eskola bakoitzetik 1
(3 orotara)



Urria >> Maiatza



Hainbat toki



Euskara



Izen-ematea
<https://labur.eus/ZIBURU-MDTK-2025-2026>



Mediateka
mediatheque@mairie-deciboure.com
06 64 74 67 43

IRAKURKETA PUBLIKOA

ZIBURU HARTU LIBURU - CIBOURE PART EN LIVRE-N BAITAN, IDAZLE ETA ILUSTRATZAILEEKIN TOPAKETAK

Ziburu hartu liburu - Ciboure part en livre jaialdiaren baitan, mediatekak Ziburuko ikastetxeetako ikasleei une berezi bat partekatzeko aukera eskaintzen die lurraldeko idazle eta/edo ilustratzaileekin. Haien lanak ezagutzeko eta liburuaren lanbidez ezbaidatzeko aukera izango dute.

Topaketa hauek 2026ko ekainean antolatuko dira.



Ezagutzak

Topaketak



1. urtetik 2. urtera



Eskola bakoitzetik 1
(3 orotara)



Ekaina



Ikasgelan



Frantsesa
Euskara



Irakasleek Adage
plataformaren bidez izena
eman beharko dute



Mediateka
[mediatheque@mairie-
deciboure.com](mailto:mediatheque@mairie-deciboure.com)
06 64 74 67 43



IRAKURKETA PUBLIKOA

LEHENGO SORGINAK, GAURKO HEROIAK

Bada, non daude gure historia osatu duten emakumeak? Ipuinetan eta errealitatean, zein emakumek lagundu diote tokiko ondare kulturalari? Galdera hauek aztertzeko helburuarekin, Idoia Rodriguezek **ordubeteko lau saioko ikastaroak** eskaintzen ditu klase bakoitzeko, **Ziburun eta inguruko tokietan eragina izan duten emakumeen izen ona itzultzeko**, sorginen mitoei eta ipuinei buruz hausnartuz.

Literatura, hitzen eta tokiko historiaren bidez, *Atzoko sorginak*, gaurko heroiak proiektuak honako hauek ditu helburu :

- Baztertuak eta estigmatizatuak izan diren sorginen buruzko kondairen hausnarketa proposatu.
- Tokiko mitoen berridazketa proposatu, oraindik gutxi ezagutzen diren kulturako pertsonaiei izen ona itzuliz
- - Idatzizko eta ahozko literaturan eta gure kulturaren agertzen diren genero estereotipoak deseraiki.

Proiektu honek, beraz, interesa duten irakasleekin adostuta, haur hezkuntzatik 5. urterainoko ikasleei zuzendutako **literatura-interbentzio interaktibo** sorta bat proposatzen du, Euskal Herriko historian ahaztutako emakumeen ondarea eta lekuko kultura-kontaktak ezagutu eta sustatzeko.

AURREIKUSITAKO TREBETASUN ARLOAK

- ⚙ Pentsatzeko eta komunikatzeko hizkuntzak
- ⚙ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ⚙ Munduaren eta giza jardueraren irudikapenak
- ⚙ Pertsonaren eta herritarren hezkuntza



Topaketak

Ezagutzak



Ttipiak-etik 5. urte-ra



2 ikasgela



Otsaila >> Martxoa



Ikasgelan



Frantsesa
Euskara



Irakasleek Adage
plataformaren bidez izena
eman beharko dute



Kultura, Ondare eta
Elkarte Bizitza saila
[animations@
mairiedeciboure.com](mailto:animations@mairiedeciboure.com)



ESPLORATZAILEAK, ARTE ETA HISTORIA HERRIALDEKO HEZKUNTZA-EKINTZAK

Donibane Lohizuneko eta Ziburuko Arte eta Historia Herrialdea bere ondarearen eta bizi-ingurunearen balioespen eta bitartekaritza prozesu baten parte da.

2016an Kultura Ministerioarekin sinatutako hitzamenaren bidez, publiko gazteari bere ondarea eta bizi-ingurunea ezagutarazteko engaiamendua hartu du. **Les Récollets-Errekoletok Arkitektura eta Ondarearen Interpretazio Zentroa (AOIZ)** da helburu hau aurrera eramateko tresna pribilegiatua. Ama Hezkuntzatik Batxiler-aurreko kurtsoraino bisita tematikoak eta tailer ludikoak eskaintzen dira urte osoan zehar.

IRAKASKUNTZA PARTE HARTZAILEA, LUDIKOA ETA NEURRIRA EGINA...

Inplementatutako pedagogia ardatz hauen inguruan antolatzen da :

- › Ondarearekin harreman pribilegiatua izateko aukera eman;
- › Arkitektura, hirigintza eta ingurumenaren ikuspegi dinamiko eta sentsorial batetik abiatu;
- › Esperimentatuz jokatu, material egokia erabiliz, kontzeptu konplexuak haurren eskura jartzeko;
- › Begirada hezi, behatzen ikasi eta adierazi bakoitzaren bizi-ingurunea ulertzeko;
- › Ikasitakoa praktikan jarri sormen plastikoen bidez.

... ESKOLAKO PROGRAMAREKIN LOTUTA

- › Frantsesa: hiztegia, idazmena eta mintzamena
- › Matematikak : Geometria, neurrien nozioak, eskala, planoak, perspektibak
- › Munduaren ezagutza : espazioan eta denboran kokatu
- › Historia : Erdi Aroa, Aro Modernoa eta Luis XIV, XIX eta XX. mendeak, Aro Garaikidea
- › Geografia : paisaia, hirigintza, itsasbazterrean bizi
- › Herritar hezkuntza : hiritarra hirian, botere lekuak, bizi-ingurunea eta ondarearen babesa
- › Hezkuntza artistikoa - arteen historia : arkitekturaren nozioak, arte bisualak, marrazki eta arte plastikoen erabilera praktikan

LES RECOLLETS - ERREKOLETOAK AOIZ-EN JARRI FOKUA

Donibane Lohizuneko eta Ziburuko portuaren erdian kokatua, Les Récollets-Errekoletok Arkitektura eta Ondarearen Interpretazio Zentroa (AOIZ) XVII. mendeko komentu ohi batean kokatuta dago.

Donibane Lohizune eta Ziburuko ondareari eskainitako leku bat :

- › Ikastaro ludiko eta interaktibo bat **ESPERIMENTATU**
- › 2000 m² dituen gune historiko bat **EZAGUTU**
- › Ondarea **AZTERTU** bisita, ikastaro, erakusketa, hitzaldi, ikuskizun eta abarren bidez

Eskolan dauden ikasleei eskainitako espazio bat :

- › Ikusle gazteentzako ibilbide bat
- › Hezkuntza areto bat
- › Egokitutako bitartekaritza tresnak: maketak, material desberdinak biltzen diren lekua, bideoak, etab.



© RC&SITES arkitektuak 2023 – argazkia : KOMCEBO

Informazio eta izen-emaitea :

Maidier Mourguiart, Médiatrice jeune public
05 59 51 61 75 / 06 64 34 33 00

maider.mourguiart@baiestjeandeluzciboure.fr



ZIBURUKO MONUMENTUAK EZAGUTU

BORDAGAINEKO DORREA

- 2 ordu
- 3. zikloa, bigarren mailako ikastetxea, lizeoa
- Ziburu, Bordagaineiko Dorrea
- Frantsesa, Euskara

Eliza, talaia, antzinako Gaztelako gotorlekuaren gela nagusia... Bordagaineiko dorreak hainbat bizitza izan ditu. Dorrea ezagutuz, ikasleek ondare erlijiosoa zein militarra ezagutzeko aukera izango dute. Azkenik, bere gailurretik, badia osoko ikuspegi apartaz gozatuko dute.

Helburuak :

- Ziburu eta badia ezagutu, altueratik begiratzuz
- Arkitektura militarra eta erlijiosoa ezagutu
- Kartografiari buruzko nozio batzuk aipatu

ERREKOLETOAK : 400 URTEKO HISTORIA !

- 2 ordu
- 3. zikloa, bigarren mailako ikastetxea, lizeoa
- Ziburu, Les Récollets-Errekoletak AOIZ
- Frantsesa, Euskara

1613tik, Errekoletoen komentua portuko paisaiatik bereizezina da. Bere jaiotzak eta bere garapenak asko esaten dute gure lurraldearen historiari. Monumentu hau tokiko ezagutzaren lekuko da, bai diseinuan eta baita erreabilitazioan ere.

Helburuak :

- Tokiko historia jorratu komentuari bizitzan murgilduz eta artxiboko dokumentuetan oinarrituz
- Bertako biztanleen bizitza ezagutu : fraideak, aduanazainak, langileak
- XVII. mendeko arkitektura erlijiosoa ezagutu

ZOKOA : AUZO BAT, PORTU BAT, GOTORLEKU BAT

- 2 ordu
- 3. zikloa, bigarren mailako ikastetxea, lizeoa
- Ziburu, Zokoako Gotorlekua
- Frantsesa, Euskara

Badiaren txoko bat apaingarri gisa.

Pertsonaia garrantzitsuak : aduanazainak, Vauban Mariskala, hidrohegazkinak, fabrika, eskola...

Gure gidak Zokoa auzoaren 400 urteko historia(k) kontatuko du/ditu. Azpimarratzeko, abentura honetako aktore nagusia : gotorlekua.

Helburuak :

- Zokoa auzoaren historia ezagutu
- Arkitektura militarra deskodetu
- Gotorlekuan bizi zirenen bizitza ulertu

ARGI GUZIAK ZIBURURI BEGIRA !

- 2 ordu
- 2. zikloa, 3. zikloa eta bigarren mailako ikastetxea
- Ziburu, Les Récollets-Errekoletak AOIZ
- Frantsesa, Euskara

Ziburuko itsasargiaren bisitak portuari begirada berria eskaintzen dio. André Pavlovskyren lan nagusi hau ezagutuz, ikasleek bere funtzionamendua eta itsas mundurako duen erabilgarritasuna ulertuko dute. Monumentu hau hainbat belaunalditako zaindariantzako bizi-leku ere izan zen...

Helburuak :

- André Pavlovsky arkitektuaren lana deskodeatu
- Itsasargiaren funtzionamendua ezagutu
- Gure itsasbazterreko balizak ulertu



Artea eta Historia Herrialdeak beste bisita, ibilbide artistiko eta ikastaro batzuk eskaintzen ditu. Haien "Esploratzaileak" izeneko liburuxkan aurkituko duzu informazio gehiago.

KULTURA ZIENTIFIKOA ETA TEKNIKOAK



AOIZ EUSKAL ITSASBAZTERRA-REN INGURUMEN HEZKUNTZA PROIEKTUAK

2022az geroztik, urteroko hitzarmen baten baitan, Euskal Itsasbazterreko Ingurumen-Ekimenetarako Zentro Iraunkorrak (CPIE) Ziburuko Udalari trantsizio ekologiko baten alde lan egiten laguntzen dio. Testuinguru horretan, hainbat lan ardatz zehaztu dira, besteak beste, hiriko ikastetxeetan ingurumenaren inguruko hezkuntza.

Horrela, urtero, Ziburuko ikastetxeek, haurren adinera egokitutako ingurumena eta garapen iraunkorrari buruzko jarduerak izango dituzte.

Ikasturtean zehar 5 egun erdietara helduz gero, jardueren egun erdiko tarifak hauek izango dira:

- Ikasgelaren tamaina < 25 ikasle :
 - Prezio finkoa 195 €/animatzaile (390 €/egun)
- Ikasgelaren tamaina = 25 eta 30 ikasle bitartean :
 - 7,80 €/ikasle (15,60 €/ikasle/egun)

30 ikasletik gora, ikasgela 2 talde erditan banatuko da, bakoitza animatzaile batekin, tarifa finkoa aplikatuta.



ANIMAZIOEN
ESKAITZA OSOA

AURREIKUSITAKO TREBETASUN ARLOAK

- ☀ Pentsatzeko eta komunikatzeko hizkuntzak
- ☀ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ☀ Munduaren eta giza jardueraren irudikapenak
- ☀ Pertsonaren eta herritarraren hezkuntza
- ☀ Sistema naturalak eta sistema teknikoak



Ezagutzak



Ama eskolatik Lehen mailara (aukeratutako animazioaren arabera)



Ikasturtean zehar 5 egun erdi (orotara, eskola guzientzat)



Iraila >> Ekaina



Ziburu (aukeratutako animazioaren arabera)



**Kultura, Ondare eta
Elkarte Bizitza saila**
[animations@
mairiedeciboure.com](mailto:animations@mairiedeciboure.com)

KULTURA ZIENTIFIKOA ETA TEKNIKOA



ITSAS-BIODIBERTSITATEA ETA ITSASOKO ONDAREA

« UHARRIEN AZPIKO BIZITZA »

- 📍 Marearteko zona arrokatuko flora eta faunaren biodibertsitatea itsasbeheran
- 📅 Egun ½
- 👤 Ama eskola eta Lehen maila
- 💬 Frantsesa eta euskara

« ITSASOAK EKARRITAKO ELEMENTUAK »

- 📍 Itsasoak ekarritako elementuen ekosistema : konposizio biologikoa eta eginkizun ekologikoa
- 📅 Egun ½
- 👤 Ama eskola eta Lehen maila
- 💬 Frantsesa eta euskara

« LEKUKO KOSTALDEKO ARRANTZA »

- 📍 Euskal kostaldean arrantzatzen diren itsas espezie nagusiak
Arrantza teknikak
- 📅 Egun ½
- 👤 Lehen maila
- 💬 Frantsesa eta euskara

« EUSKALDUNEN BALEA »

- 📍 Balea baliabide natural gisa
Bale-arrantza euskal kostaldean
- 📅 Egun ½
- 👤 Lehen maila
- 💬 Frantsesa eta euskara




© CPIE

« ELKANO ETA LEHEN ZIRKUMNABIGAZIOA »

- 📍 Esplorazio handiak.
Testuinguru historikoa, tokikotik mundu-mailara
- 📅 Saio 1 edo 2
- 👤 Lehen maila
- 💬 Frantsesa eta euskara



© CPIE



KULTURA ZIENTIFIKOA ETA TEKNIKOA

LURREKO BIODIBERTSITATEA

« ZENTZUMENAK ESNA »

- 📍 Natura deskubritzeko bost zentzumenen erabilera
- 📅 Egun ½
- 👤 Ama eskola eta Lehen maila
- 💬 Frantsesa eta euskara

« ATZOKO SAGARRA, BIHARKO ONDAREA »

- 📍 Abbadia jabegoaren fruitu-baratzea, eta lekuko sagar eta sagar zaharren aniztasuna ezagutu
- 📅 Egun ½
- 👤 Ama eskola eta Lehen maila
- 💬 Frantsesa eta euskara

« IGERI EGIN, NARRASEAN IBILI EDO HEGAZ EGITEN DUTEN IZAKI TTIIPIAK »

- 📍 Erreka edo itsasertzeko larreetako, belardi eta basoetako mikrofauna deskubritu eta ezagutu
- 📅 Egun ½
- 👤 Ama eskola eta Lehen maila
- 💬 Frantsesa eta euskara

« EMAN EGIOZU ONGI ETORRIA BIODIBERTSITATEARI ESKOLAN ! »

- 📍 Ikastetxean biodibertsitatea errezibitzeko aterpe desberdinak eraiki eta instalatu
- 📅 Hainbat saio
- 👤 Ama eskola eta Lehen maila
- 💬 Frantsesa eta euskara

« ZUHAITZEN HOSTOETATIK MARRAZTEKO ORRIETARA »

- 📍 Identifikatu zuhaitzak hosto, kimu eta azalei esker
- 📍 Zuhaitza nola bizi den ulertu
- 📅 Egun ½
- 👤 Handiak-etik 5. urte-ra
- 💬 Frantsesa eta euskara

« DESEGIN ZURE PILOTA »

- 📍 Gaueko eta eguneko harrapariak, haien habitatak, dieta, biologia eta portaera ezagutu
- 📅 Egun ½
- 👤 Lehen maila
- 💬 Frantsesa eta euskara

« TXORIEN KANTUAK ENTZUTEN »

- 📍 Txorien kantu eta oihuen esanahia
- 📍 Espezie arruntenen kantuak identifikatzea
- 📅 Egun ½
- 👤 3. zikloa
- 💬 Frantsesa

« ZERUKO BIDAIAIRIAK »

- 📍 Hegaztien migrazioaren fenomeno konplexua ulertu
- 📅 Hainbat saio
- 👤 3. zikloa
- 💬 Frantsesa

« ESKUKALDI BAT NATURARENTZAKO ! »

- 📍 Landare inbaditzaileak: Zein dira? Nondik datoz? Zer ondorio dituzte naturarentzat? Konponbide bat: proiektu parte-hartzaile bat proposatu
- 📅 Egun ½
- 👤 3. zikloa
- 💬 Frantsesa eta euskara





PAISAIA ETA GEOLOGIA

« ZER PAISAIA ? »

-  Paisaiaren irakurketa: elementu naturalak eta ez-naturalak behatu eta identifikatu Kostaldeko hiztegi berezia
-  Egun ½
-  Lehen maila
-  Frantsesa eta euskara

« ESPLORATZAILE BATEN LARRUAN »

-  Jarduera desberdinez osotutako aztarnajokoa, flora, fauna eta geologia ezagutzeko
-  Egun ½
-  Lehen maila
-  Frantsesa eta euskara

« MINTZATZEN DIREN HARRIAK »

-  Euskal itsasbazterreko arroka sedimentarioen eta itsaslabarren eraketa Higaduraren ekintza Itsasbazterreko arrisku naturalak
-  Egun ½
-  3. zikloa
-  Frantsesa eta euskara

« LARRE ERDIAN »

-  Habitat natural berezi bat ezagutu: itsasbazterreko larreak eta arriskuan jartzen dituzten faktoreak
-  Egun ½
-  3. zikloa
-  Frantsesa eta euskara



KULTURA ZIENTIFIKOA ETA TEKNIKOAK



«EKINTZA EKOARDURADUNAK» HEZKUNTZA BALIZA

Haur, gazte eta kirol zerbitzuko animatzaileak 2 orduko ikastaro bat eskaintzen dizute. 6 animazio egingo dira hartu beharreko keinu eta jokabide onen inguruan :

- **Nola sailkatu zure hondakinak:** zein edukiontzi erabili ikasteko mahai-jokoa;
- **Etxeko energia-kontsumoa gutxitzea:** etxeko eguneroko zenbait eszena irudikatuz, ikasleak jokabide onak eta txarrak identifikatzen ikasten dute;
- **Keinu on eta txarren oroimen-jokoa**
- **Gure kontsumoen eragina:** ikasleek istorioak berreraiki behar dituzte, gure kontsumoak naturan duen eragina eta bioaniztasunaren garrantzia hobeto ulertzeko;
- **Hobeto kontsumitu:** imitazio-jokoa, non ikasleek erosketak egiten dituzten bitartean, etiketak deskodeatuko dituzte, sasoiko elikagaiak jaten ikasiko dute, etab.
- **Ingurumena hobeto ulertu:** gurutzegramak.

AURREIKUSITAKO TREBETASUN ARLOAK

- ☼ Pentsatzeko eta komunikatzeko hizkuntzak
- ☼ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ☼ Munduaren eta giza jardueraren irudikapenak
- ☼ Pertsonaren eta herritarraren hezkuntza
- ☼ Sistema naturalak eta sistema teknikoak

Ezagutzak



1. urtetik 5. urtera



Eskaeraren arabera



Urte osoan zehar



Ikasgelan



Frantsesa
Euskara



Ez da izapide
administratibo berezirik
egin behar



Hautzaro, Gazteria
eta Kirol saila
[k.luberriaga@
mairiedeciboure.com](mailto:k.luberriaga@mairiedeciboure.com)



KULTURA ZIENTIFIKOA ETA TEKNIKOA

ERLEZAINITZA IKASTAROA

L'Abeille Etoile enpresak 4. eta 5. urteko bi ikasgelei eskaintzen die erleen munduan murgiltzea bi esku-hartzeri esker :

- Otsail-martxoan 1:30 eta 2 orduko iraupena duen ikasgelan **esku-hartze bat**, erlezainaren lanbidea ezagutarazteko eta etxeko erleak ezagutzeko aukera ematen duena (koloniako bizi-zikloa, erregina, langile, erlamando (arrak) eta abarren bereizketa).
- **Esku-hartze praktikoagoa**, hainbat aukera posiblerekin, irteeren aukeren eta ikasgelaren helburuen arabera :

1. Ezitia ekoizten duten landareak landatzea :

 1:30-2:00
 Otsaila-Martxo

2. Irteera Ziburu Mendira :

 3 ordu inguru (Trabeniatic irtenda)
 Martxo-Ekaina

3. Azkaineko ezti-etxera bisita :

 1:30 inguru
 Apirila-Ekaina

AURREIKUSITAKO TREBETASUN ARLOAK

- ☼ Pentsatzeko eta komunikatzeko hizkuntzak
- ☼ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ☼ Munduaren eta giza jardueraren irudikapenak
- ☼ Pertsonaren eta herritarraren hezkuntza
- ☼ Sistema naturalak eta sistema teknikoak



4. urtea eta 5. urtea



2 ikasgela



Otsaila >> Ekaina



1. egun erdia ikasgelan eta
2. egun erdia kanpoan



Frantsesa
Euskarazko antzeko ibilbide
bat aztertzen ari da



Ez da izapide
administratibo berezirik
egin behar



Kultura, Ondare eta
Elkarte Bizitza saila
[animations@
mairiedeciboure.com](mailto:animations@mairiedeciboure.com)



Ezagutzak

KULTURA ZIENTIFIKOA ETA TEKNIKOAK



ELIKADURA OSASUNGARRIRAKO HEZKUNTZA IKASTAROA

Elikatze-hezkuntza ikasgelan hasten da, lehen hezkuntzatik hasita, haurrek lehen elikadura-ohiturak bereganatzen dituztenean.

Eskolako egitarauak ikasleen elikatze-ezagutza garatzen du eskolatzeko osoan zehar, batez ere 2. eta 4. zikloetan.

Irakasleek egindako lana hedatzeko, Ziburuko hiriak elikadura osasungarriaren hezkuntzan oinarritutako egitarau bat eskaintzen du, hurrengo ekintzez osatua :

- **Egun bat Lurraman**, baserritarren nekazaritza-azoka jasangarrian, 2025eko azaroaren 7an. 2025eko edizioak «Biharko nekazariak» gaia izango du. Izena eman duten ikasgela bakoitzak azoka libreki bisitatu, bi ikastarotan parte hartu eta egunean zehar hainbat jarduera egin ahalko du.
- **45 minutuko ikastaro bat talde erdian** Sarde Sardexka elkartearekin frantsesez eta Idoki elkartearekin euskaraz; «Sasoiko platera: sasoiko fruta eta barazkiak ezagutu eta sasoitik kanpo kontsumitzeak duen eragin ekonomikoa ulertu» izenburupean.

AURREIKUSITAKO TREBETASUN ARLOAK

- ☼ Pentsatzeko eta komunikatzeko hizkuntzak
- ☼ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ☼ Munduaren eta giza jardueraren irudikapenak
- ☼ Pertsonaren eta herritarraren hezkuntza
- ☼ Sistema naturalak eta sistema teknikoak

Ezagutzak



1. urtetik 3. urtea



2 ikasgela



2025ko azaroa



Hainbat toki



Frantsesa
Euskara



Ez da izapide
administratibo berezirik
egin behar



Kultura, Ondare eta
Elkarte Bizitza saila
[animations@
mairiedeciboure.com](mailto:animations@mairiedeciboure.com)



KULTURA ZIENTIFIKOA ETA TEKNIKOAK

SOZIABILITATE DIGITALEKO KODEAK

2021ean, AdoEnia, Euskal Herriko Nerabeen Etxeak, Centre Hospitalier de la Côte Basque-ren laguntzarekin, **Résolab abiarazi zuen, eskoletarako lehen hezkuntza-sare soziala** : gazteak sare sozialetan modu seguru eta arduratsuan prestatzea helburu duen plataforma bat.

Aro digitalean, sare sozialen erabilera eguneroko bizitzaren parte bihurtu da, batez ere gazteentzat. Hala ere, mundu birtualean gero eta murgiltze handiagoarekin, ezinbestekoa da gazteak sareko praktketan hezea.

Horregatik, AdoEnia-k **ikastaroak diseinatu ditu eskoletarako**, gai hauek jorratzeko, Résolab sare sozialean rol-jokoak erabiliz :

- Argitaratzeko eskubidea al dugu?
- Albiste faltsuak eta desinformazioa
- Ziberindarkeria
- Datu pertsonalen babesa
- Teknologia digitalen erabilera arduratsua



4. urtea eta 5. urtea



Ikasgela 1



Ikasturte osoan zehar



Ikasgelan



Frantsesa
Euskara (prestatu diren
animatzaileen arabera)



Ez da izapide
administratibo berezirik
egin behar



Hautzaro, Gazteria
eta Kirol saila
[k.luberriaga@](mailto:k.luberriaga@mairiedeciboure.com)
mairiedeciboure.com

AURREIKUSITAKO TREBETASUN ARLOAK

- ☼ Pentsatzeko eta komunikatzeko hizkuntzak
- ☼ Ikasteko metodoak eta tresnak
- ☼ Munduaren eta giza jardueraren irudikapenak
- ☼ Pertsonaren eta herritarraren hezkuntza
- ☼ Sistema naturalak eta sistema teknikoak



Praktika


Ezagutzak



AUTONOMIAN USTIATU BEHARREKO BALIABIDEAK

- › Kaskarot-en ibilaldia
- › Untxin auzoaren erdian garatutako bidexka





KASKAROT-EN IBILALDIA

2021az geroztik, Ziburuko hiriak, udaberriko oporretan, jolasa eta hezkuntza biltzen dituen familia jarduera bat eskaintzen du: Kaskarot-en Ibilaldia.

Urtero, ibilbide ludiko baten bitartez, bizilagunak edo bidaian dauden pertsonak hiria eta auzoetako historia ezagutzera gonbidatzen ditu.

Ibilaldiak modu autonomoan egin daitezke liburuxka baten laguntzarekin, jolas edo enigmai esker, puntu batetik bestera joateko.

Udalak liburuxka hau ikastetxeen eskura jartzen du, ikasleak hiria ezagutzera eraman nahi dituzten irakasleentzat.



**KASKAROT-EN IBILALDIA 2021:
HIRIGUNEA**



KASKAROT-EN IBILALDIA 2022: ZOKOA




**KASKAROT-EN IBILALDIA 2023:
GURUTZE ZURIA ETA GURUTZE GORRIA**




**KASKAROT-EN IBILALDIA 2024:
MARINELA ETA ZUBIBURU**



**KASKAROT-EN IBILALDIA 2025:
ITSASBAZTERREKO SEKRETUAK
ETA ARRISKU NATURALAK**




UNTXIN AUZOAREN ERDIAN GARATUTAKO BIDEXKA



2022ko udazkeneko oporraldietan, gazteen guneko nerabeek Ziburu zeharkatu zuten ibilaldi berri bat eskaintzeko. **Office National des Forêts-etik erretiratuta dagoen Antton Goicoecheak lagunduta eta gidatuta**, bidexka bat markatu zuten, Untxin-eko aurkikuntza-bidexka berrian panel pedagogikoak jarriz. Untxin-eko frontoitik abiatuta, bidexka honek sortzen, hazten eta garatuta dagoen baso baten garapena aztertzeko aukera ematen du.

Hurrengo etapa batek ibilbide hau Harrobia eta Bordagain muinoa lotzen dituenarekin batuko du, Untxin altueran ibilbide biribil handi bat eskainiz.

Ekimen honetaz baliatu **ikasleak oihanen eta naturaguneen garrantziaz sentsibilizatzeko**, oinezko ibilbide bat eskainiz.



KONTAKTUA

Kultura, Ondare eta Elkarre Bizitza saila :

animations@mairiedeciboure.com

06 10 75 45 61

Hezkuntza saila :

m.martcorena@mairiedeciboure.com

05 59 47 11 71

Hautzaro, Gazteria eta Kirol saila :

k.luberriaga@mairiedeciboure.com

05 59 24 65 58

Mediateka :

mediatheque@mairiedeciboure.com

06 64 74 67 43

Ziburuko Herriko Etxea :

mairie@mairiedeciboure.com

05 59 47 26 06

www.ziburuko-hiria.eus

 Ville de Ciboure - Ziburuko Hiria

 ciboure_ziburu

 ZIBURU
CIBOURE

MAIRIE – HERRIKO ETXEA